


LEHEN HEZKUNTZAKO
IKASLEEN OINARRIZKO
GAITASUNAK HOBETZEKO
PLANA





**LEHEN HEZKUNTZAKO
IKASLEEN OINARRIZKO
GAITASUNAK HOBETZEKO
PLANA**




Titulua: LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN OINARRIZKO
GAITASUNAK HOBETZEKO PLANA
Argitaratzailea: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua
© Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua
Diseinua: Asis Bastida
Imprimaketa: Idazluma Industrias Gráficas S.A.
L.G.: NA - 3.198/2008



AURKIBIDEA

Aurkezpena	5
1. Oinarrizko gaitasunen hobekuntza: lehenespena eta antolakuntza	7
1.1. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna	10
1.2. Matematikarako gaitasuna	12
1.3. Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreaginean aritzeko gaitasuna	13
1.4. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala	16
1.5. Balioetan oinarritutako hezkuntza	18
2. Hobekuntzako helburuak eta jardueren proposamena	21
3. Hobekuntza plana ikastetxean prestatzea	31
3.1. Ikastetxearen autonomia eta hobekuntza plana prestatzea	32
3.2. Premiak hautematea: hobekuntza planaren abiapuntua	33
3.3. Plana taxutzea: plana Urteko Programa Orokorrean txertatzea	34
4. Hobekuntza planaren ebaluazioa	39
5. Eranskinak	43



Aurkezpena

Europako Kontseiluak, Lisboako Estrategia deitzen den hartan, 2000. urteko martxokoan, helburu gisa finkatu zuen Europako Batasuna “ezagupenean oinarrituta mundu osoko ekonomiarik lehiakorrena eta dinamikoena izatera iritsi dadila, hazkunde ekonomiko iraunkorra izateko gai izanen dena, lanpostu gehiago eta hobeekin eta kohesio sozial handiagoarekin”.

Helburu estrategiko horren arabera, Europako Kontseiluak erreferentziako bost puntu ezarri zituen, gai horretan izan daitezkeen aurrerapenen adierazle, hauek hain zuzen: irakurtzeko gaitasunak, eskola uzten dutenen tasa, bigarren hezkuntzako goi zikloa bukatzen dutenen kopurua eta helduen ikasketa iraunkorreko parte-hartze tasa.

Hezkuntzak eta prestakuntzak beren betebeharrak bikoitzean –soziala eta ekonomikoa– oinarri-oinarrizko eginkizuna dute europarrek funtsezko gaitasunak lor ditzaten eta, horrela, lotura ugari dituen, eta norantz ez dakigula baina azkar aldatuz doan mundu honetara egokitu ahal daitezen.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, egungo eskolari dagokionez, XXI. mendeko erronkei erantzun nahi die eta, Hezkuntzako Administrazioa den heinean, bere gain hartu du Europako Batasunak lan programetan ezarritako helburuak. Bere egin ditu, halaber, Erreformen Programa Nazionalen Espainiako hezkuntza sistema hobetzeko ezarritako helburuak, hauexek hain justu: PISA emaitzak hobetzea irakurmenaren, matematikaren eta gaitasun zientifikoaren arloan; atzerriko hizkuntzen emaitzak hobetzea ebaluazio nazionaletan; zientziak, matematika eta teknologia arloko goi mailako tituludunen portzentajea jasotzea, eta helduen etengabeko prestakuntza ere hobetzea.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailetan eginiko kanpoko ebaluazioez baliatu da Hezkuntza Administrazioa, bai eta ikastetxe bakoitza ere, hautemandako premiak kontuan izan eta zein esparru hobetu behar den begibistan jartzeko eta hobetze planak diseinatzeko.

Era horretan, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, bai eta haietako irakasleek ere, ezagutuko dituzte beren emaitza berariazkoak Nafarroa osokoe-kin alderatuta, eta horrek bide emanen die hobekuntza ildoak zehazteko eta beren egoerara egokitzen diren plan bereziak diseinatu eta praktikan jartzeko ikasturte bakoitzean.

Lehen Hezkuntzako ikasleen gaitasun oinarrizkoak hobetzeko plan honen asmoa da erreferentziako lanabes bat izatea eta esparru orokor bat eskaintzea, zeinetan bilduko baitira europar helburuak, nazionalak eta erkidegoarenak, ikastetxe bakoitzaren helburu berariazkoekin batera. Plan horretan, orientabide gisa, helburuak, xedeak eta jarduketa konkretuak eskaintzen zaizkie ikastetxeei, horietaz balia daitezzen beren berariazko errealitatera hobekien egokitzen direnak hautatzeko eta lehentasunak finkatzeko.


Hezkuntza Departamentuak, www.pnte.cfnavarra.es/planesdemejora, web-orriaren bitartez, beharrezkoak diren materialak ikastetxeen esku jartzen ditu, irakasleek eta zuzendaritza taldeak beren hobekuntza plana prestatu eta abian jar dezaten.

Eskerrak eman nahi dizkiet gure ikasleen ikasketa egoera hobetzen saiatzen diren pertsona guztiei, eta bereziki irakasleei. Beti aipatu izan dut irakasleak direla hezkuntza sistemaren funtsezko balioak, eta beren ekimen ahalmenari eta dedikazioari esker, hala gelako lanean nola tutoretzako edozein motatako harremanetan, Nafarroako ikasleen emaitzak hobetzeko bidean jartzen dituzte eta ikasle bakoitzaren aurrerapena bultzatzen dute. Ikastetxeak ere ezinbestekoak dira horien garapenerako; jakin badakigu ikastetxeen antolakuntza eta funtzionamendua, ikasleen parte-hartzea, barne araubidea, jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoen plangintza edo instalazioen erabilera, horiek guztiak lagungarri izan daitezkeela edo, aitzitik, kaltegarri, bizikidetzarekin, berdintasunarekin, hiritartasunarekin edo alfabetizazio digitalarekin loturiko helburuak betetzeko orduan.

Ondorengo urteetarako erronkek eta horiek gainditzeko prozesuek erakutsiko digute zein aldetara joko duen hezkuntza arloko espezialistek eta gizarte gaietako adituek osatzen duten taldeen lanak.

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

HEZKUNTZA KONTSEILARIA



**OINARRIZKO GAITASUNEN HOBEKUNTZA:
LEHENESPENA ETA ANTOLAKUNTZA**

LOE-ren ondoriozko curriculum berriek dakarkigun berritasun nabarientako bat ikasleen gaitasunak garatzeari eta ebaluatzeari buruzko aipamena da.

Europako Batasunarentzat *gako-gaitasuna edo oinarrizko gaitasuna*: “testu-inguruari egokitutako trebetasunen, ezagueren eta jarrerren konbinazioa da”. Gako-gaitasunak pertsona guztiek behar dituzte nor bere burua gauzatzeko eta garatzeko, bai eta hiritartasun aktiborako, gizarteratzeko eta enplegua lortzeko ere.

Horiek guztiak derrigorrezko hezkuntzaren bukaerarako lortu beharko lirateke, helduen bizimodurako behar diren neurrian, eta bizi osoko ikaskuntzaren parte bat bezala garatu, mantendu eta eguneratu beharko genituzke.

Erraza eta baliagarria denez gero, Ikuskapen Zerbitzuko Ebaluazio Arloak proposatutako definizioa hartzen dugu guretzat: *“Gaitasuna deitzen zaio ikasle batek bizitza pertsonalean, familian, ikasketetan edo gizartean izan dezakeen egoera bati trebeziak eta ikasitakoa erabiliz irtenbidea aurkitzeko duen ahalmenari, horretarako zenbait prozesu kognitibo edo sozioafektiboak aplikatuz”*.

Europar emandako gomendioen ildotik, curriculum berriek oinarrizko zortzi gaitasun ezarri dituzte, eta horiek gauzatzeko lagungarri dira arlo eta gai guztiak:

- ▼ Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna
- ▼ Matematikarako gaitasuna
- ▼ Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna
- ▼ Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala
- ▼ Gaitasun soziala eta herritartasuna
- ▼ Arte eta kultur gaitasuna
- ▼ Ikasten ikasteko gaitasuna
- ▼ Autonomia eta ekimen pertsonala

Zortzi gaitasun horiek garrantzi handikoak dira denak, horietako bakoitza ezaugarren gizartean arrakasta izateko lagungarri izan baitaiteke. Gaitasun horietako asko elkarrekin gaijartzen dira eta funtsezko alderdi jakin batzuk beste esparruetako gaitasuna bultzatzen dute¹.

Hizkuntzan, irakurketan eta idazketan, kalkuluan eta informazio eta komunikazioko teknologietan (IKT) oinarrizko gaitasunak izatea oinarri sendoa da ikasteko, eta ikaskuntza jarduera guztiak dira ikasten ikasteko ahalmenaren oinarri².

.....
^{1, 2, 3} Gako-gaitasunak etengabeko ikaskuntzarako — Europako erreferentzia esparru bat

Badira erreferentzia esparruan zehar aplikatzen diren gai batzuk, zortzi gako-gaitasun horietan eragina dutenak: pentsamendu kritikoa, sormena, ekimenerako gaitasuna, arazoak konpontzea, arriskua ebaluatzea, erabakiak hartzea eta sentimenduen kudeaketa konstruktiboa³.

Bestalde, PISA azterlanetan agertzen zaigu errendimenduaren arloan zer nolako garrantzia duten jarrerak, sineskerak eta emoziozko faktoreak, batez ere arlo zientifikoetan. Agerian jartzen dute, halaber, ikastetxe eta irakasleen garrantzia, ikasleen ahalmenen, ezaugarrien eta ikasketen aurrean ikasleek dituzten jarreraren heterogeneotasunean modu konstruktiboan murgiltzeko gai direlako, eta helburu horiei ezagueren irakaskuntzari adinako lehentasuna ematen zaie.

PISA azterlanek, orobat, adierazten dute eskolako giroa, gelako diziplina eta ikasleen moralak eta konpromisoa errendimenduarekin argi eta garbi loturiko faktoreak direla eskola barneko ingurunean.

Horren ondorioz, modu eraginkorrez elkarreragiteko trebeziak garatu beharra azpimarratzen da, era konstruktiboan komunikatu beharra, tolerantzia eta enpatia erakutsi beharra, bai eta estresa eta frustrazioa guztien esku-hartzea eskatzen duten bizikidetzak arauak betez kudeatu beharra ere, ardurazko agintaritzaren eta elkarrekiko errespetoaren bidez.

Beraz, Lehen Hezkuntzako etapari dagokionez, Hezkuntza Departamentuak hobekuntzako lehentasun-lerro hauek ezarri ditu:

- ▼ *hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna*
- ▼ *matematikarako gaitasuna*
- ▼ *mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna*
- ▼ *informazionaren tratamendua eta gaitasun digitala eta*
- ▼ *balioetan oinarritutako hezkuntza.*

Helburu horiek erdiesteko eratu den antolakuntza esparrua curriculum arloek osatzen dute. Baina curriculum arloetako lana ez da modu bakarra.

Gutziz orokorrak diren helburuak betetzeko ikastetxeetan behar-beharrezkoak dira bestelako jarduerak ere. Adibidez, ikastetxeetako antolakuntza eta funtzionamendua, ikasleen parte-hartzea, barne araubidea edo instalazioen erabilera lagungarri izan daitezke, edo oztopagarri, bizikidetzarekin, berdintasunarekin, hiritartasunarekin edo alfabetatze digitalarekin loturiko helburuak gauzatzekoan.

Eskolako liburutegiaren eraketa, antolakuntza eta funtzionamendua lagungarri gerta daitezke elkartekideak komunikazio munduan sartzeko, ikasten ikasteko edo, alfabetizazio digitalerako. Era berean, tutoretza lana ere funtsezko laguntza da ikasten ikasteko edo trebetasun sozialak lortzeko. Azkenik, jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan plangintzak eragina izan dezake hainbat motatako helburuak gauzatzeko orduan.

1.1 Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna

Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna “hizkuntza ahoz eta idatziz komunikatzeko, errealitatea irudikatu, interpretatu eta ulertzeko, eza-gupenak osatu eta komunikatzeko eta pentsamendua, emozioak eta portaera antolatu eta autoerregulatzeko tresna gisara erabiltzeari dagokio”⁴.

“...Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko beharrezkoa da, gainera, kulturen arteko bitartekotza eta ulermena bezalako gaitasunak izatea...”⁵

Gaitasun hori ezinbestekoa da “besteekin eta ingurunearekin lotura eta harreman konstruktiboak ezartzeko eta ezagutzen diren heinean onartzen diren bestelako kulturetara hurbiltzeko gaitasunak garatzeko. Horregatik, hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna elkarrekin bizitzeko eta gatazkak konpontzeko trebetasunaren barnean dago”⁶.

Formulazio honen bidez azpimarratu nahi da ikaslearentzat zer garrantzia duen norberaren ikasketak autoerregulatzeko gaitasuna lortzeak. Barne hartzen du batek dakienaren eta ikasi behar duenaren kontzientzia izatea, nola ikasten den jakin eta ikasteko prozesuak modu eraginkorrez kudeatu eta kontrolatzeko bidea ezagutzea, horiek optimizatu eta helburuak lortzera bideratzeko eta ikasitakoa egoera berri batera orientatzeko (metakognizioa).

.....
⁴ 25/2007 Foru Dekretua. I. Eranskina. Oinarrizko gaitasunak

⁵ Atzerriko hizkuntzen bidez komunikatzeko gaitasunaren definizioa. Gako-gaitasunei eta etengabeko ikaskuntzari buruzko Europako parlamentuaren eta kontseiluaren gomendioa

⁶ 25/2007 Foru Dekretua. I. Eranskina. Oinarrizko gaitasunak

Hizkuntza desberdinen curriculumaren ikuskera berak, komunikazioko era askotako testuinguruetan hizkuntzaz egiten den erabilera soziala azpimarratzen denean, agerian jartzen du horren eragin zuzena hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna osatzen duten alderdi guztien garapenean.

Hizkuntza, komunikazioko tresna izateaz gainera, mundua irudikatzen bide bat da eta pentsamentuaren eta ezagueraren oinarrian dago, bide ematen du nor bere buruarekin komunikatzeko, arazoak aztertzen, planak prestatzeko eta erabakiak hartzeko prozesuei ekiteko. Laburbilduz, gure jardura erregulatzen eta zuzentzen du, gero eta autonomia handiagoz. Horren kariaz, hainbat eratako arloetan hizkuntza garatzea eta hobetzea laguntza handia da pentsamendua antolatzen, afektuak eta sentimenduak komunikatzeko eta emozioak erregulatzen. Estereotipoak transmititzeko edo errotik ateratzeko elementu gisa ere jardun dezake, eta horrexegatik garrantzi handikoa da hizkuntza era inklusiboan erabiltzea, hau da, errealitatea bere osotasunean irudikatzen eta berdintasunezko ikuspegia transmititzen duen eran.

Azpimarratzekoa da, halaber, komunikatzeko gaitasuna osatzen duten estrategiak hizkuntza jakin batean eskuratzen direla, baina hala ere, kontua ez da hizkuntza konkretu bat erabiltzen jakitea, hizkuntza zentzu orokorrean erabiltzen jakitea baizik, horrek aukera ematen baitu hizkuntza batean ikasitakoa beste hizkuntza batzuk ikasteko balio izateko, eta ezagupen horiek guztiek handiagotzen dute hizkuntza zentzu orokorrean erabiltzeko gaitasuna.

Arlo horietako bakoitzetik abiatuz, arloko terminoak eta kontzeptu berariazkoak ezagutu eta ohiko adierazpen multzoari erantsi ondoren eta horiek modu zehatz eta egokian erabiliz, norberaren hiztegia era nabarmenean aberasten da.

Komunikazio-trukeen sortzaile den talde-lana sustatuz, adierazpen eta argudioak argi azaltzen trebatuz, norberaren irizpidea era arrazoituan azalduz eta beste adierazpenak adituz, norberaren ulermena eta izpiritu kritikoa garatzen dira eta komunikatzeko trebetasunak hobetzen.

Informazioa antolatzen, memorizatzen eta berreskuratzen teknikak garatzeak, adibidez, laburpenak, eskemak edo mapa kontzeptualak alde batetik, eta alde aurreko plangintza prozesuak, baliabideen kudeaketa, etengabeko berrikuspenean, emaitzen balorazioa eta kasu baten aitzinean hainbat eratako erantzunak sortarazteko malgutasuna bestetik, asko laguntzen du ikasketa-trebetasunak hobeki eta modu eraginkorragoan lortzeko.

Barne hartuz, gainera, norberaren ikaskuntzaren gaineko gogoetarekin zuzenean loturiko edukiak, iragandako prozesua ahoz eta idatziz azaltzeko ahalegina eginez, zer ikasi den, zer gelditzen den ikasteko, nola eta zertarako, eta ho-

relako gaiei buruzko gogoeta eginarazten da eta trebetasun metakognitiboak indartzen dira.

Hobekuntzako helburuak

- ▼ Mintzamina eta idazmina hobetzea curriculumeko hizkuntza guztietan.
- ▼ Curriculumeko arlo guztiak irakasteko irakasleek erabiltzen dituzten testuliburu edo bestelako materialen irakurmena hobetzea.
- ▼ Irakurtzeko ohitura eta zaletasuna hobetzea.
- ▼ Hizkuntzaren erabilpena hobetzea, errealitatearen berdintasuneko ikuspegia transmititzeko laguntza izan dadin.
- ▼ Trebetasun metakognitiboak hobetzea eta hizkuntza-gaitasunen transferentziak planifikatzea.

1.2 Matematikarako gaitasuna

“Gaitasun hau ondoko hauei dagokie: zenbakiak erabili eta erlazionatzeari, haien arteko oinarrizko eragiketak eta arrazoibide nahiz adierazpen matematikoaren motak erabiltzeari, bai era askotako informazioak sortu eta interpretatzeko, bai errealitatearen alderdi kuantitatiboari eta espazialei buruzko ezagutza handitu eta eguneroko bizitzako eta lan munduko arazoak konpontzeko”⁷.

Matematika arloko eduki gehienak batez ere *matematikarako gaitasunaren* ahalik eta garapen hobea bermatzera zuzentzen dira, alderdi guzti-guztietan. Hala ere, azpimarratu behar da matematikarako gaitasuna lortzen dela eduki horiek ikasi eta gelatik kanpoko egoera askori, matematikak erabiliz, aurre egiten zaien neurrian.

⁷ 25/2007 Foru Dekretua. I. Eranskina. Oinarrizko gaitasunak

Arazoak konpontzeko prozesuek matematikako jardueraren ardatzik nagusiene-tako bat eratzen dute eta matematikako ikasketen iturri eta hezkuntza matema-tikoaren giltzarri direnez gero, euskarri nagusi behar dute izan.

Natura, gizarte eta kultura-inguruneen ezaguera-arloak matematikako tres-nak erabiltzeko aukera ematen du, hala nola, neurriak, eskalak, taulak, irudikapen grafikoak eta arazoen konponketa, erabilpeneko testuinguru adie-razgarrietan.

Neurri apalagoan bada ere, hezkuntza artistikoak matematikarako gaitasuna garatzen laguntzen du, arkitekturan, diseinuan, altzarigintzan, eguneroko gauze-tan, natura-ingurunean eta artelana espazioan antolatzeko erreferenteak behar diren guztietan ageri diren kontzeptuak eta irudikapen geometrikoak erabiltzen direlako. Era berean, musikan erritmoa edo eskalak lantzea mesedegarri da matematikarako gaitasuna garatzeko.

Hobekuntzako helburuak

- ▼ Arazoak konpontzeko gaitasuna hobetzea, egoera arazotsuak identifikatzeari, ezaguerak aplikatzeari, estrategiak erabiltzeari, argudioak eta justifikazioa emateari dagokienez.

1.3 Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreaginean aritzeko gaitasuna

“Mundu fisikoarekin, bai haren alderdi naturalekin, bai giza jardunak sortutako horiekin, elkar eragiteko trebetasuna da, gertaerak ulertu, ondorioak aurreikusi eta nork bere bizitzaren, beste pertsonen eta gai-nerako izaki bizidunen bizi-baldintzak hobetu eta zaintzeko bidea ematen diguna”⁸.

Gaitasun honek berekin dakar pentsaera zientifiko-teknikoa garatzea eta era-biltzea, jasotzen den informazioa interpretatu eta erabakiak ekimen eta auto-nomia pertsonalez aurreikusi eta hartzeko, non eta mundu honetan, zeinean

.....

⁸ 25/2007 Foru Dekretua. I. Eranskina. Oinarrizko gaitasunak

eremu zientifiko eta teknologikoetan gertatzen diren aurrerapenak sekulako eragina baitute pertsonengan, gizartean eta naturan.

Era berean, barne hartzen du ezaguera zientifikoa bestelako jakintza-arloetatik bereizi eta baloratzeko gaitasuna, eta baita zientziari eta garapen teknologikoari lotutako balio eta irizpide etikoak erabiltzekoa ere.

Gaitasun honetan sartzen dira baliabide naturalen zentzuzko erabilera, ingurumenaren eta munduko dibertsitatearen zainketa, zentzuzko kontsumoa eta osasun pertsonalaren eta kolektiboaren babesa, pertsonen bizi-kalitatearen funtsezko elementuak baitira.

Gaitasun zientifikoa osatzen duten arazoak konpontzeko elementuak asko diren arren, matematikaren ekarpena ez da eduki-multzo hori soilik, izan ere pentsamendu matematikoaren eta ikusmolde espazialaren garapenak, irudikapen grafikoak eta neurriak erabiltzeko trebetasunak ahalbidetzen dute, gainera, ingurunea hobeki ulertzea eta zehazkiago deskribatzea.

Dena dela, gaitasun zientifikoa, batik bat, natura, gizarte eta kultura-inguruneak ezaguera arloan eraikitzen da, mundu fisikoa ulertzeko bide ematen duten kontzeptuez jabetuz, bai eta metodo zientifikoaren ezaugarri jakin batzuetara hurbilduz, esate baterako arazoak definitzen ikasiz, izan daitezkeen konponbideak kontuan hartuz, estrategiak prestatuz, munta txikiko ikerketak diseinatuz, eta emaitzak aztertuz eta jakinaraziz.

Bestalde, bere baitan hartzen dituen ikasketetako asko erabat zentratuak daude gizakiaren eta bere inguruko munduaren arteko elkarrekintzan, garapen pertsonal orekatu eta elkartasuneko jarrerak eta balioak bereganatuz, zeinak nortasun pertsonalaren, sozializazio eta bizikidetzaren, osasunaren eta ingurumenaren esparruan egituratzen baitira.

Azkenik, Nafarroari dagozkion edukien multzoa, Nafarroako nortasun eta dibertsitate natural, geografiko, historiko, kultural eta artistikoari dagozkien gaiak barne direla, lagungarri da erkidegoaren dibertsitate natural, historiko eta artistikoa ezagutu eta baloratzeko, eta bidenabar, agerian jartzen du emakumeen presentzia eta ekarpenak Nafarroako historian eta kulturaren eta gizartearen garapenean.

Hezkuntza artistikoaren arloak, naturaguneen eta gizakiak egindako obra eta errealizazioen pertzepzio lanaren bitartez, laguntzen du inguruneaz ohartarazten eta pertsonen bizitza aberastean, hori guztia sorberrituz gozamenak dakarren dimentsioa emate aldera. Horrezaz gainera, bizi-kalitatea hondatzen duten erasoak, adibidez hots-kutsadura edo espazioen, objektuen edo eraikinen zorigaiz-

1.4 Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala

“Gaitasun hau informazioa bilatu, lortu, prozesatu, komunikatu eta jakintza bihurtzeko trebetasunean datza. Trebetasun batzuk hartzen ditu barne, informazioa bilatzetik hasi eta hura tratatu ondoren euskarri desberdinen bitartez transmititzearekin bukatuta, barne hartuz informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, informatu, ikasi eta komunikatzeko funtsezko elementua baita”⁹.

Gaitasunari egiten zaion ekarpen nagusia curriculumeko hizkuntzen edukien bidez eta natura, gizarte eta kultura-ingurunearen ezaguera arloaren bidez datorchio, horiek ematen baitituzte informazioa bilatzeko, hautatzeko, aztertzeko, kritikoki baloratzeko eta tratatzeko ezaguerak eta trebetasunak. Hala ere, trebetasun horiek garatzea ez dago horien baitan soilik, izan ere curriculum-arlo guztietatik ere garatzeko laguntza aurki daiteke baldin eta teknologia ikasteko tresna gisa erabiltzen bada.

Esana dagoenez, arloko edukietako parte handi batean informazioak duen garrantziak eta horren kode, formato eta hizkuntza anitzek eskatzen dituzte bilatzeko, hautatzeko, antolatzeko eta interpretatzeko prozedura bereziak, eta horiek dira, hain zuzen ere, natura, gizarte eta kultura-ingurunearen ezaguera arloko ikasketen lehenetsutako helburu.

Gainera, alfabetatze digitalera daramaten edukiak arlo honetan esplizituki agertzea, hala nola, ordenagailuaren oinarritzko erabilera, testu prozesadore baten erabilera eta Interneten bidezko bilaketa, laguntza erabakigarria da gaitasun hau garatzeko. Alde horretatik, kontuan hartu behar da, bereziki, teknologiaren erabileran edo/eta sarbidean mutikoak eta neskatilak bereizten dituen harresi digitala ezabatzeko balio duela.

Curriculum hizkuntzei dagokienez, erantsi daiteke horiek ere lagungarri direla ezaguerak eta trebetasunak ematen dituztelako informazioa eta horren egitura eta testu-antolaketa ulertzeko, bai eta ahozko zein idatzizko produkzioan erabiltzeko ere.

Testu-konposizioan euskarri elektronikoak erabiltzen diren heinean, idazketa prozesuan (plangintza, testuaren exekuzioa, berrikuspena...) parte hartzen du-

⁹ 25/2007 Foru Dekretua. I. Eranskina. Oinarritzko gaitasunak

ten operazioetan eragina izateaz gainera, gaitasun digitala eta informazioaren tratamendua hobetzen dituzte.

Are gehiago, komunikazio digitaleko baliabide berriek idazketaren erabilera soziala eta lankidetzakoa dakarte, eta horrek bide ematen du idatzizko hizkuntza-aren ikasketa benetako komunikazio-trukearen esparruan ulertzeko.

Informazio eta komunikazioko teknologiek aukera ematen dute munduko edozein tokirekin denbora errealean komunikatzeko bai eta egunez egun gehituz doan informazioaren fluxu etengabe horretara erraz eta berehala sartzeko ere. Funtzionaltasun horrek berekin daramatza informazioaren edukiarekin, pertsonen arteko komunikazioarekin, jarduera ekonomikoekin, Interneten funtzionamenduarekin eta mendetasunekin loturiko arriskuak, eta horiek aurrekusi eta indargabetu beharko dira.

Atzerriko hizkuntza bat jakiteak besteekin komunikatzeko aukera ematen du eta, gainera, komunikatzeko testuinguru errealak eta funtzionalak sortarazten ditu.

Bestalde, matematikak gaitasun hori erdiesten laguntzen du, eta horrela, zenbakiak, neurriak, hizkuntza grafikoa eta hizkuntza estatistikoa bereganatzen dituzten informazioak erabiltzearekin eta ulertzearekin loturiko trebetasunak ematen ditu. Gainera, kalkulagailuak eta tresna teknologikoak erabiltzen hasteak gaitasun digitalaren garapena errazten du.

Azkenik, Hezkuntza artistikoaren arloa lagungarria da gaitasun honetarako, teknologia tresna gisa erabiliz musikarekin eta arte bisualekin zerikusia duten prozesuak agerrarazteko. Orobat, ikaslea iraganeko eta oraingo kultura-adierazpenetara hurbiltzeko, bertakoa izan nahiz beste herrietakoa, eta arte produkzioen sormen-lanetara eta irudi eta soinuaren analisisira hurbiltzeko.

Hobekuntzako helburuak

- ▼ Informazio iturrien erabilera hobetzea mota guztietako euskarrietan.
- ▼ Alfabetatze digitala hobetzea.
- ▼ IKTak era seguruan eta kritikoan erabiltzeko trebetasunak garatzea.

1.5 Balioetan oinarritutako hezkuntza

Balioetan oinarritutako hezkuntza hiru ardatzetan antolatzen da, elkarrekiko lotune eta erlazio sakonekin:

a

Gatazkak konpontzearekin eta eskolako giroarekin loturiko balioak

Balio horiek eskuratzeak esan nahi du besteren tokian jartzeko gai izatea, diferentziak onartzea, tolerantzia izatea eta besteen balioak, sinetkerak, kulturak eta historia pertsonala eta kolektiboa errespetatzea.

Halaber, esan nahi du modu eraginkorrez elkar eragiteko trebetasunak lortzea, enpatia eta autokontrola erakustea, zoritxarra gainditzeko, estresa eta frustrazioa kudeatzeko gai izatea, eta bizikidetzaren eta agintaritzaren arauak onartzea.

b

Gizarte batean bizitzeko gai egiten duten balioak

Balio horiek bide ematen dute gizartean bizitzeko, norbera bizi den munduko errealitate soziala ulertzeko eta hiritartasun demokratikoan aritzeko. Portaera indibidualako moduak barnean hartzen ditu, autonomiara eta beste pertsonen aldeko zainketa eta errespetura bideratutakoak; horiek gero eta pluralagoa den gizarte batean elkarrekin bizitzeko gai egiten dute, elkarrekin harremanak izateko, lankidetzarako, konpromisoak hartzeko eta gatazkei aurre egiteko.

c

Ikasteko moduarekin eta jarrerarekin loturiko balioak

Atal honetan sartzan dira ikasteko jarrera eta portaerei buruzko alderdi batzuk, hala nola erantzukizuna, jarraikitasuna, norberaren ezagutza, autoestimua, sormena, autokritika, emozioen kontrola, aukera egiteko, arriskuak kalkulatzeko, arazoei aurre egiteko, berehala asebate nahia geroratzeko eta hutsegiteetatik ikasteko eta arriskatzeko ahalmena.

Hurbileko harremanen eremuak (familia, adiskideak, lagunak, etab.) bestee-kiko emozioak eta sentimenduak ezagutzea dakar berekin, eta arlo hauek, hots, ingurumenaren ezagutza eta hiritartasunerako Hezkuntza, gune egokiak dira gatazkei buruzko gogoeta egiteko, taldean erantzukizunezko betebeharrak hartzeko, bizikidetza arauak onartu eta prestatzeko, elkarrizketarako jarrerak garatzeko eta gatazkak konpontzeko.

Lagugarri dira, halaber, nortasun partekatuzko sentimendua sortarazteko, egiuneak eta arau sozialak aitortzeko, onartzeko eta erabiltzeko eta lankidetzak, elkartasun, konpromiso eta parte-hartze balioak barneratzeko, horrela elkarrekin bizitzeko trebeziak eta nork bere burua zaintzekoak bereganatzen baitituzte eta horrek, berdintasuna eta erantzunkidetasuna ikastearekin batera, bizitza osoan lagunduko die pertsonei beren garapenean.

Bestalde, gizarte demokratikoen oinarriak eta antolatze moduei buruzko eza-guera ematen dutenez, eta orobat denboran zehar izandako aldaketei eta egun-go gizartearen erro historikoei buruzkoa, bakoitzak bizi duen errealitate soziala ulertzen laguntzen dute (hauzoa, udalerria, erkidegoa, Estatuak, Europako Ba-tasuna, etab.) bai eta giza eskubideen lorpena baloratzen, giza taldeen arteko gatazkak eta bidegabeko egoerak arbuiatzen ere, eta horren asmoa da etorkizu-nean, elkartasun, jakinmin eta informazioz hornitutako mundu osoko hiritarta-sun parte-hartzaile eta demokratikoen oinarriak finkatzea.


Azkenik, herritarren betebeharrak identifikatzea eta herritarren ohiturak bere-ganatu eta erabiltzea laguntza ona da gizarte kohesionatu, aske, aberats, bidezko eta zuzenagoak eraikitzeari hasiera emateko.

Azpimarratzekoa da pertsonen artean elkarrekin bizitzeko, errespetatzeko eta ulertzeko trebetasunak lortu ahal izateko beharrezkoa dela hizkuntza erabiltzea komunikazioaren oinarri gisa.

Beste hizkuntza batzuk eta norberarenak ez diren bestelako ezaugarri kulturalak ezagutzeak ere laguntzen du norberaren hizkuntza eta kultura hobeki ulertzen eta baloratzen eta mesedegarria da kultura eta portaera desberdinak errespetatu, ai-tortu eta onartzeko; gainera tolerantzia eta integrazioa sustatzen du eta nortasun ezaugarriak nahiz diferentziak ulertzen, estimatzen eta baloratzen laguntzen du.

Beste alde batetik, hizkuntzaren erabilera baztertzailleak errotik erauzten ere laguntzen du, hizkuntzak aurreiritziak eta munduaren irudi estereotipatuak nola transmititzen eta zehatzen dituen aztertuz.

Azkenik, arlo bakoitzean egiten den talde-lana baliabide eraginkorra da harre-manak eta integrazioa errazteko eta elkarrekintza eraginkorrerako trebetasunen



**HOBKUNTZAKO HELBURUAK
ETA JARDUEREN PROPOSAMENA**

Gaitasuna

Helburuak

Hizkuntza

- ▼ Mintzamina eta idazmena hobetzea curriculumeko hizkuntza guztietan.
- ▼ Testuliburuaren eta curriculumeko arlo guztiak irakasteko irakasleek erabiltzen dituzten bestelako materialen irakurmena hobetzea.
- ▼ Irakurtzeko ohitura eta zaletasuna hobetzea.
- ▼ Hizkuntzaren erabilpena hobetzea, errealitatearen berdintasuneko ikuspegia transmititzeko laguntza izan dadin.
- ▼ Trebetasun metakognitiboak hobetzea eta hizkuntza-trebetasunen transferentziak planifikatzea.

Matematikarako gaitasuna

- ▼ Arazoak konpontzeko gaitasuna hobetzea, egoera arazotsuak identifikatzeari, ezaguerak aplikatzeari, estrategiak erabiltzeari, argudioak eta justifikazioa emateari dagokienez.

Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna

- ▼ Ikasleen pentsaera zientifiko-teknikoa garatzea.
- ▼ Espazioarekiko elkarrekintzarako jarrerak eta balioak garatzea, zentzuz, elkartasunez eta era osasuntsuan.
- ▼ Erkidegoaren ezaguera hobetzea.
- ▼ Erkidegoaren dibertsitate natural historiko, kultural eta artistikoari buruzko jarrera irekia sustatzea.

Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala

- ▼ Informazio iturrien erabilera hobetzea mota guztietako euskarrietan.
- ▼ Alfabetatze digitala hobetzea.
- ▼ IKTak zentzuz eta era seguruan eta kritikoan erabiltzeko trebetasunak garatzea.

Hezkuntza-balioak

- ▼ Bizikidetzeta eta eskolako giroa hobetzea.
- ▼ Gizartean bizitzeko gaitzen duten balioetan oinarritutako hezkuntza hobetzea.
- ▼ Ikasteko moduarekin eta jarrerarekin loturiko balioak garatzea.

HIZKUNTZA-GAITASUNA

Helburua

Idazmena hobetzea curriculumeko hizkuntza guztietan

XEDEA

- a) Ikasleen idatzizko produkzioaren plangintza hobetzea, testu-motak kontuan hartuz: deskribatzaileak, narraziozkoak eta azalpenezkoak.
- b) Narrazio eta azalpenezko testuen egitura hobetzea.
- c) Itxura eta ortografia hobetzea.
- d) Perpausen sintaxia eta testuaren barne kohesioa hobetzea, ziklo bakoitza kontuan hartuta.
- e) Arlo bakoitzeko hiztegi aberats, askotariko eta berariazkoaren erabilera hobetzea.
- f) Testuen berrikuspina hobetzea.
- g) Ikasleek idatzitako testuen produkzioa gehitzea.

Mintzamina hobetzea curriculumeko hizkuntza guztietan

- a) Ikasleen ahozko produkzioarako egoerak gehitzea.
- b) Argi eta ozenki mintzatzea, hitzak eta letrak ongi ebakiz.
- c) Intonazioa hobetzea.
- d) Erritmoa hobetzea.
- e) Hitz betegarriak saihestea.
- f) Arlo bakoitzeko hiztegi aberats, askotariko eta berariazkoaren erabilera hobetzea.

EKINTZA

- ▼ Landu beharreko mailak argiro definitzea eta ziklo bakoitzean testuen produkzioari eta ahozko adierazpenari buruzko eskaera hori egitea
- ▼ Ziklo bakoitzeko testuen produkzioa eta ahozko adierazpena lantzeko lerro metodologiko komunak finkatzea.
- ▼ Mintzamenaren eta idazmenaren zuzentasuna homogeneizatzea.
- ▼ Ziklo bakoitzean idatzizko testuen produkzioari eta mintzamenari buruz ados jartzea.
- ▼ Ziklo bakoitzean idatzizko testuen produkzioari eta mintzamenari buruzko ebaluazioaren gainean ados jartzea.
- ▼ Ikasle bakoitzaren jarraipen banan-banakoa eta dokumentatua egitea.
- ▼ Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.
- ▼ Iritzien azalpena eta elkarrizketak eta eztabaidak sustatzeko ados jartzea.

...

Helburua

Curriculumeko arlo guztiak irakasleek erabiltzen dituzten testuliburu edo bestelako materialen irakurmena hobetzea

XEDEA

Ikaslearen gaitasuna hobetzeko xedeak:

- a) Ahots ozenez irakurtzea.
- b) Arlo bakoitzeko oinarrizko hiztegia bereganatzea.
- c) Testuaren ideia nagusia edo asmo orokorra identifikatzea.
- d) Informazioa berreskuratzea (testuan barna informazio esplizitua kokatu eta ateratzeko).
- e) Testuak ulertzea (esanahia atera eta inferentziak egitea informazio inplizitua bilatzeko).
- f) Edukiaren gainean gogoeta egin eta ebaluatzea (testuaren edukia aldeztetik aurretiko ezaguerekin, ideiekin eta esperientziekin erkatzeko).
- g) Formari buruzko gogoeta egitea (testuaren hizkuntz ezaugarriak ebaluatzeko arlo hauetan: morfosintaxian, lexiko-semantikoan eta testuarekin).

EKINTZA

- ▾ Ikastetxeko Irakurketa Plana prestatzea.
- ▾ Landu beharreko mailak argiro finkatzea eta ziklo bakoitzean irakurmenari buruzko eskaera egitea.
- ▾ Irakurmena lantzeko lerro metodologiko komunak ezartzea.
- ▾ Irakurmenaren balorazioa zikloko edo mailako homogeneizatzea.
- ▾ Zikloen barnean ados jartzea idatzizko testuen ulermenaren praktikari eta ebaluazioari buruz.
- ▾ Gelarako ezarritako testuaren informazioak aberasteko egunkariak, aldizkariak eta bestelako liburuak erabiltzea.
- ▾ Zikloen barnean ados jartzea zenbait jardura burutzeko eskolako liburutegia erabiltzeko buruz.
- ▾ Irakasleekin bisitaldiak antolatzea liburutegietara, liburutegietara eta liburu-azoketara.
- ▾ Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.
- ...

HIZKUNTZA-GAITASUNA

Helburua

Irakurtzeko ohitura eta zaletasuna hobetzea

XEDEA

- a) Ikaslearen konfiantza eta segurtasuna indartzea irakurtzeko duen trebetasunari buruz.
- b) Irakurtzeko ohitura sustatzea, adinari egokitutako liburuen artean ikasleak berak aukeratuta edo ikaskideek gomendatuta.
- c) Ikasle bakoitzaren irakurketen kopurua progresiboki gehitzea.
- d) Ikasleak liburudendetara, liburutegietara eta liburu-azoketara bisitaldiak egitera bultzatzea.

EKINTZA

- ▾ Nahitaez irakurri beharreko liburuen zerrenda prestatzea eta irakurketaren maiztasuna finkatzea: astero, hamabost egunetik behin edo hilero.
- ▾ Ikasle bakoitzak etxean irakurri beharrikoen jarraipen individualizatu eta dokumentatua egitea.
- ▾ Ziklo bakoitzean ados jartzea zenbait jarduera burutzeko eskolako liburutegia erabiltzeari buruz.
- ▾ Ikasleekin bisitaldiak antolatzea liburudendetara, liburutegietara eta liburu-azoketara.
- ▾ Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.
- ▾ Ziklo bakoitzean ados jartzea bakarka nahiz taldeka irakurtzen eman beharreko denborari buruz.

Hizkuntzaren erabilpena hobetzea, errealitatearen berdintasuneko ikuspegia transmititzeko laguntza izan dadin

- a) Ahozko eta idatzizko komunikazioan hizkuntzaren erabilpen ez-sexista hobetzea, estereotipoak erazteko laguntza izan dadin.
- b) Errealitatearen berdintasuneko ikuspegia transmititzeko adibideak, irudiak eta material didaktikoak erabiltzea.

- ▾ Hizkuntzaren komunikazio eta erabilera ez-sexistari buruzko prestakuntza-ikastaroak sustatzea.
- ▾ Berdintasuneko komunikazioaren gaineko eskuliburuak eta orientabideak hedatzea.
- ▾ Erabiltzen diren testuak eta material didaktikoak aztertzea.
...

Trebetasun metakognitiboak eta hizkuntza-trebetasunen transferentziak hobetzea

- Ikaslearen gaitasuna hobetzea ondorengo trebetasun hauetan:
- plangintza
 - estrategien hautaketa eta horien aplikazioa
 - prozesuaren kontrola
 - berrikuspena eta ebaluazioa
 - egoera berrietara transferitzea
 - jarrera kritikoa
 - sormenezko ekimena
 - erabakiak hartzea
 - arriskua ebaluatuz
 - berdinen arteko lankidetzatza, gelak, mailak, etab.

- ▾ Proposatutako helburuekin hobekien egokitzen diren metodologia eta estrategiak zehaztea.
- ▾ Ikasketak garatzeko jarduera egokienak adostea, aukera emanez ezaguera berriak erdiesteko, lehendik dituztenak berrantolatuz eta balioetan oinarritutako prestakuntza sustatuz.
- ▾ Arlo desberdinetako ezaguerak berriro sendotzea.
- ▾ Curriculumeko hizkuntzen artean hizkuntza-trebetasunen transferentziari lagundu diezaioketen estrategiak planifikatzea.
- ▾ Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.

Helburua

Arazoak konpontzeko gaitasuna hobetzea, egoera arazotsuak identifikatzeari, ezaguerak aplikatzeari, estrategiak erabiltzeari, argudioak eta justifikazioa emateari dagokienez

XEDEA

- a) Bizitza errealeko egoerak, matematika motako arazoak planteatzen direnean, identifikatzeko eta ulertzeko gaitasuna hobetzea.
- b) Jaso diren ezaguera matematikoak arazoak konpontzera bideratzeko ahalmena hobetzea.
- c) Konponbideen fase desberdinen ezaguera eta aplikazioa hobetzea.
- d) Arazoak konpontzeko estrategien erabilera hobetzea.
- e) Baloratzeko eta argumentatzeko ahalmena hobetzea, zenbakizko edo geometriako informazioa erabiliz.
- f) Arazoei konponbidea emateko motibazioa, interesa eta atsegina hobetzea.
- g) Norberak bere buruaz duen konfiantza maila hobetzea.
- h) Emozio-faktoreen kontrola hobetzea.
- i) Arazoak konpontzeko izandako prozesua modu ordenatu eta argian adieraztea.

EKINTZA

- ▾ Ziklo bakoitzean landu eta eskatu beharreko mailak argiro finkatzea.
- ▾ Ziklo bakoitzean arazoak konpontzeari buruzko lerro metodologiko komunak finkatzea.
- ▾ Arazoen konponbidearen zuzentasuna homogeneizatzea.
- ▾ Zikloen barnean praktikari eta ebaluazioari buruz ados jartzea.
- ▾ Ikasle bakoitzaren jarraipen banan-banakoa eta dokumentatua egitea.
- ▾ Arazoak konpontzeko jarrera positiboak garatzen dituzten ikasketa metodoak eranstea.
- ▾ Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.

Helburua

Ikasleen pentsaera zientifiko-teknikoa garatzea

XEDEA

Ikaslearen ahalmena hobetzeko xedeak:

- a) Munduari behatzea ereduaren, erregularitatearen, antzekotasunen bila.
- b) Galderak egitea.
- c) Ikerketa baten plangintza egitea.
- d) Datu zehatzak eta erkagarriak ateratzeko tresnak erabiltzea.
- e) Informazioa antolatzea.
- f) Aurkikuntzen gainean gogoeta egitea.
- g) Ereduak esperimentatu edo eraikitzea.
- h) Izan daitezkeen aplikazioak asmatzea.
- i) Ondorioak jakinarazteko txostena prestatzea.

EKINTZA

- ▼ Ziklo bakoitzean landu eta eskatu beharreko mailak argiro finkatzea.
- ▼ Ziklo bakoitzean metodo zientifikoari buruzko lerro metodologiko komunak finkatzea.
- ▼ Ikerketa zientifikoaren zuzentasuna homogeneizatzea.
- ▼ Zikloen barnean praktikari eta ebaluazioari buruz ados jartzea.
- ▼ Metodo zientifikoaren aldeko jarrera positiboak garatzen dituzten ikasketak metodoak eranstea.
- ▼ Zientzia-museoetara, planetariora eta abarretara irteerak programatzea.
- ▼ Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.
- ...

Ingurunearekiko elkarrekintzarako jarrerak eta balioak garatzea zentzuz, elkartzunez eta era osasuntsuan

Ikaslearen ahalmena hobetzeko xedeak:

- a) Baliabide naturalak zentzuz erabiltzea.
- b) Ingurumena zaintzea.
- c) Kontsumo arrazoizko eta zentzuzkoa.
- d) Osasun pertsonalaren eta kolektiboaren babesa.

- ▼ Ziklo bakoitzean landu eta eskatu beharreko mailak argiro finkatzea.
- ▼ Ziklo bakoitzean lerro metodologiko komunak ezartzea.
- ▼ Zikloen barnean praktikari eta ebaluazioari buruz ados jartzea.
- ▼ Balio hauek garatzen dituzten ikasketak metodoak eranstea.
- ▼ Horien garapenerako lagungarri izan daitezkeen irtenaldiak eta eskolaz kanpoko jarduerak programatzea.
- ▼ Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.
- ▼ Balio horietan oinarritutako hezkuntzako departamentuarterako programetan¹⁰ parte hartzeari buruz ados jartzea, hala nola:
 - Osasun hezkuntza eta hezkuntza afektibo-sexuala
 - Kontsumo zentzuzko eta elkartzunezko hezkuntza
 - Ingurumen hezkuntza
 - Bide hezkuntza
- ...

.....
¹⁰ Hezkuntza Departamentuak beste departamentu batzuekin (Osasuna, Gizarte Gaiak, Ingurumena...) elkar lanean bultzatutako programak

Helburuak

Erkidegoaren ezaguera hobetzea

Erkidegoaren dibertsitate natural historiko, kultural eta artistikoari buruzko jarrera irekia sustatzea

XEDEA

- a) Nafarroako aberastasun natural, geografiko, historiko eta kulturala ezagutzea.
- b) Hezkuntzan, osasuna eta bizia zaintzen, historian, arte lanetan, kulturean eta nafar gizartearen garapenean emakumeen presentzia eta ekarpenak agerian jartzea.

Ondare natural, historiko eta artistikoa eta haren dibertsitatea zaintzeko, errespetatzeko eta baloratzeko jarrerak garatzea.

EKINTZA

- ▾ Ziklo bakoitzean landu eta eskatu beharreko mailak argiro finkatzea.
- ▾ Laneko lerro metodologiko komunak finkatzea.
- ▾ Zikloen barnean praktikari eta ebaluazioari buruz ados jartzea.
- ▾ Urteko Programa Orokorrean eta programazio didaktikoetan eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak eranstea.
- ▾ Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.
- ▾ Haur eta gazteei emakumeen presentzia eta ekarpenak agerrarazten dituzten azterlanak, argitalpenak eta ikerketak eskaintzea.

INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA ETA GAITASUN DIGITALA

Helburua

Informazio iturrien erabilera hobetzea mota guztietako euskarrietan

XEDEA

Trebetasun hauek garatzea:

- bilaketa
- hautaketa
- antolakuntza
- erabilera
- informazioaren transmisioa

EKINTZA

- ↘ Ziklo bakoitzean landu eta eskatu beharreko mailak argiro finkatzea.
- ↘ Lanerako lerro metodologiko komunak ezartzea.
- ↘ Zikloen barnean praktikari eta ebaluazioari buruz ados jartzea.
- ↘ Eskolako liburutegia, informatika-gela eta beste gela bereziak antolatzeke eta horien funtzionamendurako neurriak ezartzea.
- ↘ Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.

Alfabetatze digitala hobetzea

Trebetasun hauek garatzea:

- ordenagailuaren oinarrizko erabilera
- testu-prozesadorearen erabilera
- Interneten bilaketa gidatua

- ↘ Ziklo bakoitzean landu eta eskatu beharreko mailak argiro finkatzea.
- ↘ Lanerako lerro metodologiko komunak ezartzea.
- ↘ Zikloen barnean praktikari eta ebaluazioari buruz ados jartzea.
- ↘ Eskolako liburutegia, informatika-gela eta beste gela bereziak antolatzeke eta horien funtzionamendurako neurriak ezartzea.
- ↘ Helburuok lortu ahal izateko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.
- ↘ Familiak inplikatzeko.

IKTak zentzuz eta era seguruan eta kritikoan erabiltzeko trebetasunak garatzea

- a) Sarean eskura dagoen informazioaren analisi kritikoa egiteko ahalmena garatzea.
- b) IKTak zentzuz erabiltzeko trebetasunak garatzea, denborak, ordutegiak eta abar finkatuz.
- c) Interneten arriskuez ohartaraztea, hala nola eduki kaltegarrietan sartzeko arriskuaz, arrotzekin harremanetan jartzekoaz, iruzurrez, pribatutasunaren galeraz, cyberbullying delakoaz, "menpean erortzekoaz"...
- d) IKTak era seguruan erabiltzeko trebetasunak garatzea, ohartaraziz filtroak eta blokeoak erabiltzearen beharraz, datu pertsonalik ez emateaz, etab.

HEZKUNTZA-BALIOAK

Helburuak

Bizikidetzeta eta eskolako giroa hobetzea

Gizartean bizitzeko gaitzen duten balioetan oinarritutako hezkuntza hobetzea

Ikasteko moduarekin eta jarrerarekin loturiko balioak garatzea

XEDEA

- Gatazkak konpontzeko trebetasunak garatzea.
- Familian eta eskolan aginte-printzipioa indartzea.
- Familiak hezkuntza-balioen sustapenean inplikatzeko.

Desberdintasunen aurrean tolerantzia, errespetoa, balorazioa eta elkartasuna garatzea, bai eta sexuen arteko berdintasuna eta erantzunkidetasuna ere, departamentuarterko hezkuntza-balioen programetan parte hartuz¹¹:

- Berdintasunerako hezkuntza
- Bakerako eta garapenerako hezkuntza

Honelako balioak garatuko dira:


- erantzukizuna
- jarraikitasuna
- malgutasuna
- nork bere burua ezagutzea
- autoestimua
- arriskuez jabetzeko eta huts eginez ikasteko gaitasuna
- frustrazioarekiko tolerantzia
- sineskera mugatzaileak gainditzea, hala nola porrotari zaion beldurra, blokeoa...
- berezko motibazioa
- etab.

EKINTZA

- Ikastetxearen antolaketa neurriak eta funtzionamendua, ikasleen parte-hartzea, barne araubidea eta instalazioen erabilera argiro finkatzea.
- Ikastetxeko bizikidetzeta plana prestatzea.
- Tutoretza planean agintea indartzeko jarduerak eranstea.
- Balio hauek garatzeko arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.
- Ados jartzea departamentuarterko hezkuntza-balioen programetan parte hartzeari buruz.
- Eguneroko bizitzan eta pertsonen arteko harremanetan norberaren zainketa eta autonomiarako trebetasunak ikasteko eta horietaz sentsibilizatzeko moduluak garatzea.
- Gurasoen prestakuntzan balioetan oinarritutako hezkuntza, erantzunkidetasuna eta autonomia eranstea.

- Balio horiek sustatzen eta garatzen dituzten lan metodoak eranstea.
- Programazio didaktikoetan eta tutoretza planean ikasteko jarrera positiboak garatzen dituzten metodologiak eranstea.
- Balio hauek garatzeko, arlo bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia adostea.

¹¹ Hezkuntza Departamentuak beste departamentu batzuekin (Osasuna, Gizarte Gaiak, Ingurumena...) elkar lanean bultzatutako programak



**HOBEKUNTZA PLANA
IKASTETXEAN PRESTATZEA**

Hezkuntza Departamentuak berak eginiko proposamenen bidez irakaskuntza prozesuarekin loturiko printzipio batzuk ezarri eta helburu argi batzuk finkatu nahi ditu, ikastetxeetako lanari orientabide bat ematearren. Hala eta guztiz ere, behar den tartearen erantzun nahi die haien gogoeta beharrekin bat datozen ikusmoldeak aplikatu daitezkeen.

Hezkuntza sisteman hobekuntza orokorrak ezartzeko proiektuak, esku-hartzeko plan bereziak eta horiei datzekien materialak garrantzi handiko tresnak dira hezkuntzaren plangintza egiteko, aplikatu eta ebaluatzeko, baina ikastetxeen *jardunbide eraginkorrak* erabakitzen ditu ikasketen emaitzak.

Hori dela eta, ikastetxeek bere diseinatu behar dute beren Ikastetxeko Plana, horretarako autonomia baitute, beren premien eta baliabideen arabera, irizpide praktikoak, errealistak eta hezkuntza-komunitate osoak onesten dituenak erabiliz, eta kontuan hartuz barneko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak. Horien zehaztapena ikastetxeko programazioan jasoko da.

3.1 Ikastetxearen autonomia eta hobekuntza plana prestatzea

Ikastetxeen autonomia funtsezko tresna da hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko, eta ikasleen arrakasta hobetzeko proposamenetako bat da, PISA txostenak frogatzen duenez, autonomia horren alde egitea.

Ikastetxe batek, gainera, zein tokitan kokatua dagoen, hango eskaera sozialei erantzun behar die. Horretarako, ezinbestekoa du maila handiko autonomia, bidea izan dezan eskolako bizitzako eremu desberdinetan erabakiak hartzeko, esate baterako arlo hauetan: pedagogian, antolakuntzan, eta eskura dituzten baliabideen kudeaketan.

Autonomia handiagoak ikastetxeko hezkuntza-komunitatearen (irakasleak, ikasleak, familia eta gizartea) partaidetza eta inplikazio maila handiagoa dakar berekin hobekuntza prozesuen garapenean eta giza-baliabideen eta baliabide materialen definizioan eta kudeaketan.

Zehazki adierazteko, aztertu, gogoeta egin eta ados jartzeko premia dago, horrek bide ematen baitu funtzionatzen duten eta ez duten alderdiak ikusteko, horren arrazoiak aztertzeke eta hobetzeko konpromisoak ezarri eta Urteko Programa Orokorrean sartzeko.

Hartutako konpromisoak zein neurritan bete diren jakiteko barneko ebaluazioa egitea ere eskatzen du horrek Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen barnean

(KPB), eta hori gero ikasturte bukaerako oroitidazkian, Ikuskapen zerbitzura igorriko den horretan, agerraraziko da.

Barneko ebaluazio horrekin batera, kanpoko kontrola, Hezkuntza Ikuskatzaitzaren esku dagoena, beharrekoa da, halaber, zeinak, testuinguruaren analisiatik eta izandako prozesuetatik abiatuta, aztertuko baititu ateratako emaitzak eta hezkuntza sistemaren esparru orokorrean erkatuko.

Gizarteak galdatzen dituen xedeak betetzeko eta guztientzako prestakuntza komuna bermatzearren, zeinen bidez hiritarrek gizartean bizitzeko premiazkoak diren ahalmenak eta jarrerak eskuratu ahal baititzakete, autonomia-eredu honen betebeharra zera da: ikastetxeek beren jarduera pedagogikoa, antolakuntza eta baliabideak erregulatzeko ahalmen gehiago izatearen eta administrazioak horien gainean izan behar duen koordinazio eta kontrolaren arteko oreka lortzea.

Alde horretatik, Hezkuntza Departamentuak hobekuntzako helburuak finkatu ditu. Horiek, "Oinarrizko gaitasunen hobekuntza: lehenespena eta antolakuntza" epigrafearen pean, lehenengo kapituluan zehazten dira eta oinarrizko gaitasunen gaineko bost arlo edo lerroren inguruan antolatuak daude.

Ikastetxeko planak aldeaz aurretik adierazitako bost arlo edo lan lerro horiek nahitaez garatu behar ditu. Ikastetxe bakoitzak errendimendua hobetzeko konpromiso zehatzak hartu behar ditu, bere testuingurura egokitutakoak, bai eta bere esku dituen ikasleen ezaugarrietara ere.

Plana prestatzerakoan ikastetxeei laguntzearren, 2. kapituluan hobekuntzako helburuak eta plana diseinatzerakoan kontuan hartu beharreko jarduketak zehazkiago aurkezten dira.

3.2 Premiak hautematea: hobekuntza planaren abiapuntua

Barneko eta kanpoko ebaluazioen emaitzen kudeaketa hobetzeko asmoz, ondorengo estrategiak proposatzen dira Hezkuntza Departamentuak (ikus 2. kapitulua) proposatutako helburuen artean, hautatu, lehenetsi eta kontestualizatzeko egozienak direlakoan, ikastetxeko errealitate eta premietarako helburuak hobetzeko:

- ▾ Ebaluazioen emaitzen analisia
- ▾ Puntu sendoenen identifikazioa eta hobetu beharreko alderdiak
- ▾ Irakasleen eta familien inplikazioa bilatzea

3.3 Plana taxutzea: plana urteko programa orokorrean txertatzea

Kalitatea Kudeatzeko Sistemen ezarpena azken aldi honetan funtsezko proiektu bihurtu da hezkuntza erakundeek (ikasleak, irakasleak, hezkuntza erakundeak, enpresak, etab.) beren intereseko talde nagusienetan emaitza ezin hobeak lor ditzaten, beren giza baliabideen, ekonomikoen eta azpiegituren eta prozesu guztien kudeaketa eraginkorraren bitartez.

Alderdirik adierazgarrienetako bat plangintza da, ikastetxean burutzen diren prozesuak etengabe hobetzeko eta bikaintasunerantz aurrera egiteko oinarri gisa.

Kalitatea kudeatzeko sistemak dituzten ikastetxeek bestelako plangintza mota bat planteatzen dute, ohiko metodoei intereseko talde guztien parte-hartzea erantsiz eta ikastetxeko proiektuan inplikaturik dauden erakunde, gizarte-entitate eta agente guztien arteko lankidetzarako jarrera sendotuz.

Kalitatea Kudeatzeko Sistemek plana ezartzeko darabilten metodologia Deming-en PDCA zikloan oinarritzen da, lau elementuk osatzen dutena:

P • Hobekuntza ekintzak planifikatzea

D • Planeatutako plangintza gauzatzea

C • Plangintzako emaitzak lortu direla frogatzea

A • lortutako emaitzetatik ikastea eta etengabe hobetuz joatea

Plana taxutzea

Hobekuntzako helburuak finkatu ondoren (ikus aurreko atala), horietako bakoitzean zehaztu behar da:

- ▼ Planifikatutako helburuak zein interes-talde edo eremu ukitzen dituen.
- ▼ Zein diren zehaztu beharreko adierazleak.
- ▼ Zer emaitza lortu nahi den (xedeak) adierazle bakoitzerako, oinarritzat abiapuntua edo hasieran zehaztutakoetatik beste edozein balio hartuz.

Beste alde batetik, hobekuntzako ekintzen plangintzak ondoren zehazten direnak daramatza:

- ▼ Proposatutako xedeak lortzeko programatutako jarduketak. Premiazkotzat jotzen diren adina ekintza zehaztu behar dira.
- ▼ Ikastetxeko langileen artean planifikatutako ekintza bakoitzaren arduradunak identifikatzea.
- ▼ Planifikatutako ekintzak burutzeko behar diren giza baliabideen, ekonomikoen eta azpiegiturakoen plangintza egitea.
- ▼ Denboran zehar ekintza bakoitzak izanen duen hurrenkera ezartzea, noiz hasi eta noiz bukatuko den azalduz.
- ▼ Ekintzen jarraipenaren epeak zehaztea (gutxienez berrikustaldi bat ekintzak dirauen bitartean).

Ikastetxeak hobekuntzako helburuak ezarri eta zehaztu dituenetan eta abiaraziko dituen ekintzen plangintza egin ondoren, horri buruzko erabakiak eta akordioak "PLANA TAXUTZEA" epigrafeko 1. eta 2. tauletan agerraraziko dira. Horiek eranskinetan daude eta Urteko Programa Orokorren barnean sartuko dira.

Ikastetxeko planaren prestaketa zuzentzeko, ondoren laguntzako zenbait dokumentu eranstean dira:

- **Ikastetxeko hobekuntza planaren prestaketa** izeneko taula, kontuan hartu beharreko alderdiak, estrategiak eta izan daitezkeen jarduketak biltzen dituena.
- **PLANA TAXUTZEA izenekoaren 1. eta 2. taulak**, horietan adierazten dena nola bete argitzen dutenak.

IKASTETXEKO HOBEKUNTZA PLANA PRESTATZEA

Alderdiak

Estrategiak

Egin daitezkeen jarduketak

Ebaluazioen emaitzak kudeatzea

- Ebaluazioen emaitzei buruzko analisia.
- Puntu sendoak eta hobetu beharrekoak identifikatzea.
- Irakasleen inplikazioa (etapetan, zikloetan, lan taldeetan, etab.), bai eta familia ere.

- ▼ Ikuskatzaitzaren eta zuzendaritza taldearen analisia.
- ▼ Lan taldeak sortzea.
- ▼ Lan taldeek hobekuntza helburuak eta ikastetxeko planaren jarduketak zehaztea.
- ▼ Adostutakoa idatziz jasoko duten agiriak zehaztea.

Ikastetxeko plana taxutzea

- a) Hobekuntzako proposamenak prestatzea.
- b) Aplikazio eremuak ezartzea:
 - Curriculum, irakaskuntza,
 - antolakuntza eta funtzionamendua,
 - tutoretza,
 - bizikidetasuna,
 - familia eta gizartea.
- c) Adierazleak definitzea.
- d) Espero diren emaitzak (xedeak) zehaztea.
- e) Oinarrizko jarduketaren azalpena egitea.
- f) Arduradunak izendatzea.
- g) Premiazko baliabideak zehaztea: materialak, prestakuntza ikastaroak...
- h) Ekintza bakoitzerako denboraren hurrenkera egitea.
- i) Jarraipena eta kontrola egitea.

- ▼ Hobekuntzako arloak ezarri edo lehenestea, ikastetxeko premiak, ebaluazioen emaitzak eta ikastetxeko interes-taldeetan bildutako iradokizunak kontuan hartuta.
- ▼ Tokian tokiko helburuak, ikastetxearen errealitatearekin bat datozenak, ezartzea.
- ▼ Aplikazio eremuak adostu eta zehaztea.
- ▼ Emandako urratsak eta prozesuak inguruan hautatutako ikastetxe batean emandakoekin erkatzea.
- ▼ Adierazleak eta xedeak finkatzea, helburuak zenbateraino bete diren baloratzeko.
- ▼ Ekintzak zehaztea eta ikastetxeak burutzen dituen prozesuetan txertatzea, ekintza horien frogak (irakaslearen koadernoak, ebaluazio aktak, irakurketa plana, bizikidetzaren plana...) jasotzen dituen erregistroa zein den adieraziz.
- ▼ Garapenaren egutegia planifikatzea, helburuei buruzko berrikuspen eta birdefinizioarako epeekin batera (kolorezko laukitxoak ekintza planaren egutegian, plana taxutzea izenburukoaren 2. taula).
- ▼ Arduradunak izendatzea: pertsonak, taldeak, egiturak...
- ▼ Behar diren baliabideak identifikatu eta hautatzea.
- ▼ Prestakuntza ikastaroak proposatzea.
- ▼ Urteko planaren jarraipena egiteko prozedura zehaztea (hiruhileko baten ereduak).

PLANA TAXUTZEA. (1. taula). Adibidea

IKASTETXEA:	Ikasturtearen plana:				
Hobekuntzako helburuak	Aplikazio eremuak	Xedea	Prozesuak / Proiektuak	Arduraduna	Jarraipenaren adierazlea
Idazmena hobetzea	Irakaskuntza	Itxura eta ortografia hobetzea	Ikastetxeko irakurketa eta idazketa plana	Zikloko koordinatzaileak	Hartutako akordioak
Bizikidetzaren hobetzea	Bizikidetzaren	Gatazkak konpontzeko trebetasunak garatzea	Bizikidetzaren plana	Ikasketaburua	Lan taldearen proposamenak
IKTak segurtasunez erabiltzeko trebetasunak garatzea	Tutoretza, familia eta gizartea	Sarearen arriskuen eta praktikaren onen gaineko kontzientzia harraraztea	Tutoretzaren plana	Tutorea	Galde-sorten kopurua

Hobekuntzako helburuak ikastetxeak zehazten ditu, bere errealitatearen arabera.

Xedeei lorpen maila adierazten dute, epe luzean erdietsi nahi dena (urte batean edo gehiagotan).


Garatu beharreko **prozesuak eta proiektuak**, zehaztutako helburuak dauzkatenak 4. zutabearen ageri dira. Garapenaren **arduraduna** 5. zutabearen izendatzen da.

Adierazlea lortu nahi denaren seinale edo zantzu bat da modu neurgarrian emana.

PLANA TAXUTZEA. (2. taula). Adibidea

IKASTETXEA:		Ikasturtearen plana:											
1. XEDEA	ITXURA eta ortografia hobetzea	PROZESUAJ/ PROIEKTUAJ	Ikasteteko irakurketa eta idazketa plana	Adierazlea	Hartutako akordioak eta aktetan jasotakoak								
	EKINTZAK	Ard.		IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	APR	MAI	EKA
	Ziklo bakoitzean landu eta eskatuko diren mailak argiro zehaztea	CC											
	Ziklo bakoitzean landu beharreko jardura zehatzak finikatzea	CC											
	Zuzentasuna homogeneizatzea	CC											
2. XEDEA	Gatazkak konpontzeko trebetasunak garatzea	PROZESUAJ/ PROIEKTUAJ	Bizikidetzeta plana	Adierazlea	Lan taldearen proposamenak								
	EKINTZAK	Ard.		IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	APR	MAI	EKA
	Ikasleaburutzari eta orientabideko departamentuari gatazkak konpontzeko prestakuntza ematea	J. E.											
	Lan talde bat sortzea	R. F.											
	Gatazkak konpontzeko moduluak prestatzea eta klausuroan aurkeztea	R. F.											
3. XEDEA	Sarearen arriskuen eta praktika onen gaineko kontzientzia harraztea	PROZESUAJ/ PROIEKTUAJ	Tutoretzeta plana	Adierazlea	Gaude-sorten kopurua								
	EKINTZAK	Ard.		IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	APR	MAI	EKA
	Familiak inplikatzeta: familien artean sareko arriskuen zerrenda banatzea	T											
	Familiak inplikatzeta: segurtasuneko oinarziko arauen gaude-sorta bat prestatu, banatu eta bilduz	T											

Urteko Planeko ekintzak egutegian adierazten dira beren iraupen osoarekin, kolore bateko hondoan (argia). Bukatu diren ekintzak hondo ilunean adierazten dira. Hiru hilabeteko jarraipena egiteko **ABIAN DIREN ETA BUKATU EZ DIREN** ekintzak bereziko dira. Dokumentu horrekin egiten da jarraipena, gero behar diren erabakiak hartzeko.



**HOBKUNTZA
PLANAREN EBALUAZIOA**

Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetan autoebaluazioa ez ezik kanpoko ebaluazioa ere bultzatzearen aldeko apostua egin du eta, azken horri dagokionez, maila desberdinetan. Maila horietako bat nazioarteko ebaluazioetan parte hartzea litzateke, oinarritzko gaitasunetako batzuen ziklokako ebaluazioa planteatzen baitute.

Nazioarteko ebaluazioetan parte hartzeak aire berritzailea ekartzen ahal die praktika mota batzuei eta egungo testuinguruan, premiazkoak diren ikasketen gainean garrantzi handiko auziak planteatzeko lagungarri izan daiteke.

Ildo horri jarraikiz, Foru Komunitateko lagin adierazgarri batekin PISAn parte hartzeak garrantzi berezia du, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bukaeratik gertu dauden adinetan PISA funtsezko erreferentzia-puntu bihurtu baita hezkuntza sistemetarako.

Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza administrazioak parte hartzen du, halaber, Ebaluazio Institutuak (E.I.) burutzen duen Estatu osoko hezkuntza sistemaren ebaluazioan. Izen hori, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak ezarria, berria da, behialako INECSE ordeztzen duena (Hezkuntza sistemaren ebaluazio eta kalitaterako Institutu nazionala).

Horrela, ikasleen errendimendua, hezkuntza prozesuak, irakaskuntza, ikastetxeak, ikuskatzaitza eta administrazioa Ebaluazio Institutuak analizatu ohi dituen alderdietako batzuk dira, beraz, hezkuntza sistema osoa ebaluatzen du.

Hezkuntza Departamentuaren lehentasunezko helburuetako bat ahaleginak egitea da, hezkuntza komunitatea osatzen duten guztiek, irakasleek, ikasleek, zuzendaritza-taldeak, gurasoek eta administrazioako arduradunek, ikastetxeen hobekuntza helburu, barne ebaluazioaren eta ikastetxeen ebaluazioaren prozesuan parte har dezaten, erantzukizun partekatua sustatzearen.

Planaren ebaluazioan bi ikuspuntu bereiz daitezke:

A. Barne ebaluazioa

Planaren programazioan planifikatutako ekintza bakoitza bete ote den berrikusteko datak zehaztu behar izan dira.

Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak burutuko du ezarritako epeetan plana berrikustea eta horren jarraipena, ondorengo hauek barne direla:

1. Berrikusteko egunera arte burututako ekintzak.
2. Planifikatutako ekintzak eta ezarritako helburuak zenbateraino bete diren.
3. Planifikatu denarekin hautemandako desbideraketak, eta horiek zergatik gertatu diren.
4. Ekintza zuzentzaileak, planifikatutako helburuak aurreikusitako epean bete daitezen.

Analisi honen ondorioak eranskinean ageri den **urteko planaren jarraipena** izeneko taulan ezarri eta ikasturtearen amaierako oroitidazkian sartuko dira. Kapituluaren bukaeran taula hori nola bete erakusten duen adibide bat erantsi da.

B. Kanpoko ebaluazioa

B1. Planaren ebaluazioa

Aldian aldiko berrikuspenez gainera beharrezkoa da bukaerako oroitidazkia egi-tea, ondorengoak jakinarazteko:

1. Planifikatutako helburuak zenbateraino bete diren eta helburu bakoitzerako eta intereseko talde bakoitzean lortutako emaitzak ezagutzeko.
2. Adierazle bakoitzean emaitzak zenbateraino bete diren eta zein joera dagoen jakiteko, abiapuntuarekin alderatuta.
3. Hobekuntzako helburuak identifikatzeko, hurrengo ikasturteko Planean sartzeko.

B2. Planaren ondorioak

Planaren ondorioak oinarrizko gaitasunei egokitutako frogen bidez ebaluatuko dira.

Ikuskapen Zerbitzua elkarlanean ari da Ebaluazio Institutuarekin LOEn Lehen Hezkuntzako 4. mailarako aurreikusitako proba diagnostiko horiek diseinatzen. Dena dela, Nafarroan, 2008/09 ikasturteetik aurrera ebaluazio diagnostiko horiek Lehen Hezkuntzako 2. eta 6. mailetara hedatuko dira.

Beraz, planaren ondorioen ebaluazioa eta ebaluazio diagnostikoa batera eginen dira; 2009an hasi eta urtero errepikatuko dira eta Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailetara hedatuko.

JARRAIPENA ETA KONTROLA. Adibidea

IKASTETXEA:		ABENDUA	
IKASTURTEA:		ABENDUA	
XEDEA	Jarraipen dataren aitzinetik bukatzekoak edo berrikustekoak diren ekintzak	EGOERA	II.BALORAZIOA/ III. HARTUTAKO ERABAKIAK
1	Landu eta eskatuko diren mailak argiro zehaztea	FI	Jardueren zerrenda egiten ari dira mailaz maila, arlo desberdinetan lan egiteko
	Ziklo bakoitzean landu beharreko jarduera zehatzak adostea	EP	Itxura eta ortografia zuzentzeko erabiliko diren irizpideak aktetan jaso dira
	Zuzentasuna homogeneizatzea	FI	
2	Ikasketaburutzari eta orientabideko departamentuari gatazkak konpontzeko prestakuntza ematea	FI	
	Lan talde bat sortzea	EP	Lan taldea eratzeko interesatuta dauden irakasleen zerrenda egin da
	Gatazkak konpontzeko moduluak prestatzea eta klaustroan aurkeztea	EP	Zikloko koordinatzaileekin bilera egin da laneko plan bat finlitzeko


FI: Bukatutako ekintza

EP: Abian den eta bukatu gabe dagoen ekintza (onartzeko moduko epe batean burutzen ahal da)

Hiru hilabeteko jarraipena egiteko, abian diren ekintzak bereiziko dira.

Dokumentu horrekin egiten da jarraipena, gero behar diren erabakiak hartzeko.

Epe laburrean bukatzekoak diren ekintzak jasotzen ahal dira.



ERANSKINAK

IKASTETXEKO PLANA TAXUTZEA. 1. taula

IKASTETXEA:	Ikasturtearen plana:				
Hobekuntzako helburuak	Aplikazio eremuak	Xedea	Prozesuak / Proiektuak	Arduraduna	Jarraipenaren adierazlea

Hobekuntzako helburuak ikastetxeak zehazten ditu, bere errealitatearen arabera.

Xedeeak lorpen maila adierazten dute, epe luzera erdietsi nahi dena (urte batean edo gehiagotan).

Garatu beharreko **prozesuak eta proiektuak**, zehaztutako helburuak dauzkatenak 4. zutabearen ageri dira.

Garapenaren **arduraduna** 5. zutabearen izendatzen da.

Adierazlea lortu nahi denaren seinale edo zantzu bat da modu neurgarrian emana.

IKASTETXEKO PLANA TAXUTZEA. 2. taula

IKASTETXEA:		Ikasturtearen plana:											
1. XEDEA	PROZESUAK/ PROIEKTUAK	Adierazlea											
	EKINTZAK	Ard.	<i>Ekintzen egutegia</i>										
			<i>IRA</i>	<i>URR</i>	<i>AZA</i>	<i>ABE</i>	<i>URT</i>	<i>OTS</i>	<i>MAR</i>	<i>APR</i>	<i>MAI</i>	<i>EKA</i>	
2. XEDEA	PROZESUAK/ PROIEKTUAK	Adierazlea											
	EKINTZAK	Ard.	<i>Ekintzen egutegia</i>										
			<i>IRA</i>	<i>URR</i>	<i>AZA</i>	<i>ABE</i>	<i>URT</i>	<i>OTS</i>	<i>MAR</i>	<i>APR</i>	<i>MAI</i>	<i>EKA</i>	
3. XEDEA	PROZESUAK/ PROIEKTUAK	Adierazlea											
	EKINTZAK	Ard.	<i>Ekintzen egutegia</i>										
			<i>IRA</i>	<i>URR</i>	<i>AZA</i>	<i>ABE</i>	<i>URT</i>	<i>OTS</i>	<i>MAR</i>	<i>APR</i>	<i>MAI</i>	<i>EKA</i>	

Urteko Planeko ekintzak egutegian adierazten dira beren iraupen osoarekin, kolore bateko hondoa dute (argia). Bukatu diren ekintzak hondo ilunean adierazten dira. Hiru hilabeteko jarraipena egiteko **ABIAN DIREN** ETA **BUKATU EZ DIREN** ekintzak bereziko dira. Dokumentu horrekin egiten da jarraipena, gero behar diren erabakiak hartzeko.

JARRAIPENA ETA KONTROLA

IKASTETXEA:		ABENDUA	
IKASTURTEA:		ABENDUA	
XEDEA	Jarraipen dataren aitzinetik bukatzeak edo berrikustekoak diren ekintzak	EGOERA FI / EP	II. BALORAZIOA / III. HARTUTAKO ERABAKIAK

FI: Bukatutako ekintza

EP: Abian den eta bukatu gabe dagoen ekintza (onartzeko moduko epe batean burutzen ahal da)

Hiru hila beteko jarraipena egiteko abian diren ekintzak bereiziko dira.

Dokumentu horrekin egiten da jarraipena, gero behar diren erabakiak hartzeko.

Epe laburrean bukatzeak diren ekintzak jasotzen ahal dira.